

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Aurrekontuak, Finantza-kudeaketa eta Diruzaintza

Vitoria-Gasteizko Udalaren, haren udal erakunde autonomoen eta udal sozietate publikoen 2025eko ekitaldiko aurrekontu orokorreari hasierako onespena ematea

2025eko ekitaldiko aurrekontu orokorreari hasierako onespena ematea erabaki zuen Vitoria-Gasteizko udalbatzak 2025eko urtarrilaren 24an egindako aparteko Osoko Bilkuran. Horien barruan honako hauek daude sartuta: udal erakundearenak berarenak, administrazio izaerako udal erakunde autonomoenak —Jose Uruñuela Udal Dantza Eskola, Luis Aranburu Udal Musika Eskola eta Ingurugiro Gaietarako Ikastegia— eta udal sozietate publikoenak —Vitoria-Gasteizko Udal Urak SA (AMVISA), Vitoria-Gasteizko Hiri Garraioak SA (TUVISA), 21 Zabalgunea SA eta Gasteizko Industri Lurra SA.

Arabako Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko martxoaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan xedatutakoaren ildotik, honen bitartez jakitera ematen da Vitoria-Gasteizko Udalaren 2025eko ekitaldiko aurrekontu orokorrak jendaurrean jarrita egongo direla Ogasun Sailean, 15 egun baliodun —iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik—, interesatuta daudenek azterterik izan dezaten, baita egokitzen jotzen dituzten alegazio eta erreklamazioak aurkezterik ere, udalbatzari zuzenduta.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko erabaki hori behin betiko bilakatuko da, eta berriro ere jendaurrean jarriko dira aurrekontuak, kapituluz kapitulu laburtuta, aurreko paragrafoan adierazi den modu berean.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 24an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO